

SECCIÓN II

ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Ayuntamiento de Galdakao

Bases reguladoras y convocatoria del proceso selectivo excepcional de estabilización de Empleo temporal de larga duración derivado de las disposiciones adicionales 6.ª y 8.ª de la Ley 20/2021, correspondiente a la subescala de Servicios Especiales de la escala de Administración Especial, clase Agente de Policía Local.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
Foru moldiztegia- Imprenta foral

Honekin batera, iragarki bat bidaltzen dizuet Bizkaiko Aldizkari Ofizialean lehenbailehen argitaratzeko.

Galdakaon, 2022ko abenduaren 22an.

Iñigo Hernando Arriandiaga
Galdakaoko Alkatea

GALDAKAOKO UDALA

Udaltzaingoaren plazei dagozkien Salbuespenezko Egonkortze-Prozesuak arautuko dituzten oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

2022ko abenduaren 22ko 2810 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Udaltzaingoarean plazei dagozkien Salbuespenezko Egonkortze-Prozesuak arautuko dituzten oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea erabaki da.

Horretarako, aipatutako lege-arauetan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan eta II. tituluko IV. kapituluan, langileak hautatzeari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorritz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluko g) idatz-zatian emandako eskumenak baliatuz, honako hau ebazti da:

Lehenengoa. Dekretu honekin batera jasotako Oinarri Arautzaileak onartzea. Oinarri horiek Galdakaoko Udaleko enplegua egonkortzeko **Udaltzaingoaren plaza** **dagozkien Salbuespeneko** Egonkortze- Prozesuak arautuko dituzte.

Bigarrena.- Galdakaoko Udaleko **udaltzain-plazei dagozkien salbuespenezko** egonkortze-prozesuen **deialdia egitea**, honekin batera doazenez.





Hirugarrena.- Deialdiaren oinarri arautzaileak eta deialdia udaleko iragarki-taula elektronikoan, udalaren web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, eta dagokion aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eskabideak aurkezteko epea zenbatzeko.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan.





IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA ONARTZEA, 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA, ADMINISTRAZIO BEREZI ESKALAKO, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALAKO, UDALTZAINGOKO AGENTE MOTARI DAGOKIONA

1. – Deitutako plazak.

Oinarri hauen helburua da Galdakao Udaleko Udaltzaingo plazei dagozkien enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten arauak ezartzea.

Hautaketa-prozedurarako deialdia egiten da, lehiaketa-sistemaren bidez. Prozedura hori osatuko da, prozeduraren zati gisa, prestakuntza- ikastaro batekin eta praktikaldi batekin, udaltzaingoaren kidegoko oinarrizko eskalako agente-plazak betetzeko, honela banatuta:

PLAZA KOPURUA NÚMERO DE PLAZAS	LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.). CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.).				
		HE/PL	DD/FP	DO/CD	BO/CE	BE/RE
1	UDALTZAINGOKO AGENTEA AGENTE DE POLICIA LOCAL	2	30/07/1995	16	17.023'92 €	GIDABAIMENA B PERMISO CONDUICIR
1			17/12/1997			
1			31/12/2004			





20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

-Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

-30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa.

-6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

-20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.

-1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

-Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Araudia onartzen duena.

-7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko kidego eta eskalena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikagarri zaizkien guztian.

-Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta lanbide- sustapena egiteko Araudi Orokorra.

-10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

-86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

-297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.





-39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

-40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

-3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerakoa.

-4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzena.

-3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

-2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

-7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa.

-Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

-Oinarri arautzaile hauek.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua lehiaketa-sistemaren arabera artikulatuko da.

Prozesu honetan txanda bat aurreikusten dira: a) librea.

2.- Parte hartzeko baldintza orokorrak

2.1. Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.





b) Aurretiazko eskaera egitea.

c) Eskuratu nahi den eskalako edo kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

Horretarako, deialdiko plazei dagokien lanpostuko eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa izan beharko dute, uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan agertzen den baztertzeko-baremoaren arabera. Udaleko Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute gaitasun hori, 13.3 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

d) 18 urte izatea eta 38 urte beteta ez izatea muga hori Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoetan egindako zerbitzuekin konpentsatu ahal izango da.

e) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Batxilergoko titulua edo baliokidea, edo goi-mailako beste edozein. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztatgaria eduki beharko da.

f) Doloeko delitu batengatik zigorrak jaso ez izana eta diziiplina-espediente bidez inongo Administrazio Publikoren zerbitzuetatik edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetatik baztertu ez izana, eta ebazpen judizial bidez lan edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutua edo berezia ez izatea, funtzionario gorputz edo eskaletan sartzeko, ez eta aurkeztzen diren hautaketa-probei dagokien gorputz, eskala edo espezialitate berekoa izatea ere.

g) Praktiketako funtzionario izendatua izan den egunean indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea.

h) Hutsegite larria edo oso larria egiteagatik Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoren batean edo Udaltzaingoaren Zerbitzuren batean sartzeko hautaketa-prozeduratik baztertua ez izatea, salbu eta haren preskripzio-epearen baliokidea den epe bat igaro bada, bazterketa deklaratu zen egunetik zenbatzen hasita.

i) Armen erabilera: Indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan armak eramateko eta erabiltzeko idatzizko konpromisoa, zinpeko deklarazioaren bidez emango duena.

j) Hautaketa-prozesuaren barruan plazari lotutako lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren





egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatze proba egiten den eguna izango da.

k) Turismoetarako B motako gidabaimena izatea, deitutako plaza guztietarako eskabideak aurkezteko epearen azken egunean indarrean dagoena.

l) Langileak hautatzeko deialdian izena emateagatiko tasa ordaindu izana, 12 eurokoa.

m) Deialdia egin duen Udalean ez izatea karrerako funtzionarioak, azpieskala edo kategoria bereko lan-kontratuko langile finkorik.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berariaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.

2.2. – Baldintzak betetzeko datak.

Plazak lortu nahi dituztenek oinarrietan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 7.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen diren egunean.

Hala ere, prozedurako edozein unetan Epaimahaiak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiaren baldintzak betetzen, izangai hori prozesutik baztertuko da, interesdunari entzunaldia eman eta gero; eta egun horretan bertan emango zaio erabakiaren berri hautaketa-prozesua abiarazi duen organoari.

3. – Hautatzeko baldintza orokorrak.

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte, inola ere, baldintzak betetzea egiaztatu ez dutenek bete. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

4. – Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak.

Epaimahaiak ezin izango du proposatu jende gehiago sartzea, karrerako funtzionario gisa deitutako plazetatik gora, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:





– Hautatutakoen uko egiteak, izendatu edo lanpostuaz jabetu aurretik, edo

– 13. oinarrian xedatutakoaren arabera izangaiei eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea, edo, aurkeztutakoaren arabera, 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat betetzen ez dutela edo zereginak betetzeko behar den gaitasun fisiko edo psikikoa betetzen ez dutela ondorioztatzea.

Kasu horietan, hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko da. Epaimahaia egingo du zerrenda hori, dagokion izangaiei aldeko izendapen osagarriaren proposamena egiteko, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-ordenaren arabera, eta hautatutaz joko dira aipatutako inguruabaren ondorioz hutsik geratu diren plazen kopuru bera duten izangaiei kopurua.

b) Lanpostuaz jabetzeko unean lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, eta egonkortze-deialdietan plaza lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, hutsik geratzen diren plazak esleituko dira. Horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiaik egindako hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du.

Hautaketa-prozesua behar bezala jarraitzeko, lanpostuaz jabetzeko unean eszedentzia-egoerara igaro nahi duten izangaiek izendapen-proposamena jakinarazi eta 15 eguneko epea izango duete eskaera egiteko.

5. – Argitalpenak eta iragarki-taula.

Hautaketa-prozesuen deialdiak kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, bai eta Galdakaoko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere (<https://www.galdakao.eus/deialdiak>).

Hautaketa-prozesuan zehar, haren garapenaren alderdiei lotutako informazio guztia Galdakaoko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, jakinarazpenak egiteko (<https://www.galdakao.eus/deialdiak>).

6. – Eskabideak aurkeztea

6.1- Prozesuan onartzea.

Parte hartu nahi dutenek eskabide-ereduan adierazi beharko dute zein hautaketa-prozesutan parte hartu nahi duten.





Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira: 1) eskabidea atal guztietan betetzea, 2) epearen barruan aurkeztea eta 3) langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea.

Era berean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintza guztiak, 7.1. oinarrian euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik; azken kasu horretan, 7.6. oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da.

6.2.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabidea, dagokion tasa ordaintzearekin batera, hogeita (20) egun baliouduneko epean aurkeztu beharko da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.3. – Nola aurkeztu eskabideak.

Eskabideak **II. eranskin**eko eredu ofizial eta normalizatura egokituko dira. Eredu hori Galdakao Udaren webgunean egongo da eskuragarri (<https://www.galdakao.eus/> deialdiak), eta tasa ordaintzearekin bat formalizatu beharko dira, salbuespenak salbuespen, Galdakao Udaren Zerbitzu Publikoak Emateagatik eta Administrazio Jarduera Egiteagatik Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren E) epigrafearen arabera.

Euskararen informazioari buruzko eskabidearen epigrafean nahitaez jasoko da egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, eta, horrez gain, euskara-azterketa egin nahi izanez gero ere agertu beharko da, aurkeztu nahi den hizkuntza-eskakizuna berariaz adierazita.

Eskabidearekin batera honako hauek erantsiko dira:

- a) **Erantzukizunpeko adierazpena**, behar bezala beteta eta sinatuta, oinarri hauei erantsitako **III. eranskin**aren arabera. Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartzeko, bere erantzukizunpean adierazi beharko du eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez, eta hori guztia aipatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz.





- b) **Auto-Balorazio formularioa (IV. eranskina)** behar bezala beteta eta sinatuta. Inprimakia izangai guztiek bete beharko dute, baita egonkortzeko datuen ziurtagiria aurkezten dutenek ere.
- c) **Hala badagokio, tasa ordaintzetik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.**
- d) **Ofizioz, honako betekizun, merezimendu eta informazio hauek egiaztatu eta/edo espedientearen sartuko dira**, interesdunak berariaz kontrakoa adierazten ez badu; **nolanahi ere**, II. eta IV. eranskinak betez **alegatu beharko dira**:
- o Nortasun-datuak egiaztatzea.
 - o Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulazio akademikoa.
 - o Hizkuntza-eskakizunik altuena (euskara).
 - o Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) egindako ikastaroen zerrenda.
 - o Gidabaimenak (DGT).
 - o IT Txartela (erakunde ziurtatzailea).
 - o Galdakako Udalean emandako zerbitzuak.

Egiaztapena ezin bada egin, izangaiei beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango zaie, eta 10 eguneko epea emango zaie, horren berri ematen zaienetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzen ez duten izangaiei dagokien izapidea egiteko eskubidea galdu dutela deklaratu ahal izango zaie.

- e) Deialdiaren oinarrietan jasotako eta **alegatutako gainerako merezimenduen egiaztagiria**.
- f) Galdakako Udaleko bitarteko funtzionarioek edo aldi baterako lan-kontratuko langileek Giza Baliabideen Sailak emandako **“Egonkortzeko datuen ziurtagiria”** aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri hori izangai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskuratu ahal izango du, eta bertan jasoko da Udalak langilearen esperientziari, datu akademikoei eta abarri buruz duen informazioa.

Hala ere, ziurtagiri horretan jasotzen ez den edozein betekizun edo merezimendu eskabidearekin batera alegatu eta aurkeztu beharko da, hori guztia aurreko paragrafoetan adierazitako moduan. Bestela, baldintzak betetzen ez badira, ezin izango





da hautaketa-prozesuan parte hartu, eta ez dira baloratuko egiaztatuta ez dauden merezimenduak.

6.4. - Non aurkeztu eskabideak.

Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko tokiak:

- Ahal dela: Udalaren web orriaren bidez: <https://www.galdakao.eus/deialdiak>.
- Galdakao Bilbo kaleko 4. zenbakian dagoen ESAN Herritarrei Arreta emateko Bulegoan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

Eskaerak Udaleko Alkatetzara igorriko dira. Akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak edozein unetan zuzendu ahal izango dira administrazio-egintzetan, ofizioz eta/edo interesdunak eskatuta (ex art.). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua.

Hautagaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira.

6.5. Tasak

6.5.1.- Tasa nominalki eta banan-banan ordainduko da hautaketa-prozesuan, eta kuota 12 eurokoa izango da, Galdakao Udalaren Zerbitzu Publikoak Emategaitiko eta Administrazio Jarduerak Egitegaitiko Tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren E) epigrafearen arabera.

6.5.2.- Tasa autolikidazio-erregimenean eskatuko da, eta ordainketa online edo Kutxabank erakunde laguntzailearen bidez egin ahal izango da, Galdakao Udaleko web gunean ezarritako baldintzetan.





- Euskararen ezagutza, 7.6 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

7.2.–Eskakizunak eta merezimenduak alegatzea.

Parte hartzeko baldintza orokorrak, deitutako plazei lotutako lanpostuen betekizun espezifikoak eta merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

7.3. –Eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzea.

7.3.1.- Epaimahai kalifikatzaileak alegatutako merezimenduak egiaztatuko ditu, kasuan kasu, dagozkion erregistroei, administrazio publikoetako datuak kontsultatzeko plataformari edo ziurtagiria ematen duen erakundeari kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu- jarduketaren ardura duen organoak ikusten badu.

Aurkakotasun arrazoitua agertuz gero, aurkakotutako dokumentuak aurkeztu beharko dira aurkakotasunarekin batera.

7.3.2.– 13. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonak, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izendatu aurretik, honako merezimendu eta baldintza hauek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

-epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ezin izan dituenak, edo

- hautagaiak egiaztapen hori egitearen aurka agertu badira eta organo eskudunak onartu badu.

Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aldez aurretik aurkeztea.

7.4. – Esperientzia eta antzintasuna. Administrazio publikoetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia baloratuko da:

-Deialdia egin duen Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.





-Gainerako herri-administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko agiriaren kopia sinple batekin alegatu beharko dira. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduan, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta plazarari lotutako lanpostuaren taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, mota edo kategoria eta izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora; lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, amatasuna eta aitasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean uztartzea helburu duena, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

7.5. – Titulazioak.

Atzerriko tituluaren kasuan, tituluaren kopia soila aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria ere, kalifikazio-epaimahaiak hala eskatzen duenean.

7.6. – Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da.

Eskabidean azterketa egitea eskatu duten pertsonak baino ezin izango dira aurkeztu, baldin eta epaimahaiak azterketa egiteko behar den puntuazioa egiaztatu badute.

Nolanahi ere, edozein titulu edo euskara-ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskara-azterketa egiten den eguna izango da.

Galdakako Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa- prozesuan, ezta Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen- salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagiriaren bidez egiaztatzetik salbuesteari





buruzkoa da eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean aplikatzen da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira salbuespen horretatik kanpo daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuei dagokienez.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz emango dio baimena Galdakao Udalarri egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, honako esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hizkuntza-eskatzizun ziurtagiri eta titulu baliokideak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko tituluekin eta ziurtagiriekin egiaztatzetik salbuesteko dena.

7.7.-Informatika-ezagutzak.

Informatikako ezagutzak IT Txartela ziurtagiri-sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

8.- Hautagai-zerrendak onartzea

8.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartzeko ebazpena emango da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetzen duen erantzukizunpeko adierazpenari lotutako datuen arabera egingo da.

Zerrenda horietan, hautagaien izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia – Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren





arabera – eta auto- eta balorazio-formularioan aitortutako puntuazio osoa jasoko dira. Gainera, ez onartzeko arrazoia jasoko da prozesutik kanpo geratzen diren pertsonentzat.

Onartutakoen, bazter utzitakoen eta atzera egindakoen zerrendak zehaztuko du, oro har, puntuazioaren arabeko eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak). Epaimahaiak mereziko ditu, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera eta kategoria bakoitzerako deitutako plazen arabera, eskala honen arabera:

— Deitutako 5 plaza edo gutxiago: deitutako plazak halako 5.

Aurrekoari kalterik egin gabe, hautagai-zerrenda bideragarriak ez dagoelako onarpenei, bazterketei eta atzera egitei buruzko foru aginduan aurrez zerrendatuta dagoen zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduera horretan bertan agertzen den puntuazio-ordena zorrotza errespetatuz egingo da.

Ebazpen hori < Bizkaiko Aldizkari Ofiziala >> aldizkarian argitaratuko da, eta udalaren iragarki-taulan eta web orrian jarriko da ikusgai. 10 eguneko epea emango da baztertze horren aurka erreklamatzeko eta hura eragin duten hutsegiteak edo agiriak zuzentzeko.

8.2. Zuzentzeko epe hori igarotakoan, ebazpena emango da aurkeztutako erreklamazioak ebazteko, eta behin-behineko zerrendaren modu berean argitaratuko da.

Onarpen eta bazterketen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-udalburuari, hilabeteko (1) epean, zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8.3. Onartutako eta/edo baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, hautaketa-prozesuan egin beharreko iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

8.4. Baztertutako pertsonak merezimenduen baloraziora eta euskara-proba egitera kautelaz aurkeztu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute baztertzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela, baldin eta egun horretarako ez bada ebatzi.

Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

8.5. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesuan





eskatutako baldintzak aitortzen zaizkienik. Azkenean pertsona hautatzen badute, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela baldintzaren bat, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzetako bat betetzen ez duen izangairen bat dagoela, interesdunari entzun ondoren, hura baztertzea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta pertsona horrek parte hartzeko eskabidean egindako okerrak edo faltsutasunak jakinarazi beharko dizkio.

9. – Hautaketa-prozedura

9.1.- Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeak aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuesenezko deialdi honetan. Txanda bakar bat egongo da: libre.

Lehiaketa Epaimahai Kalifikatzaileak Auto Formularioan alegatu eta aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratzea izango da, oinarri hauen arabera definitu diren instantzien kopurua baloratuz.

Autobalorioak epaimahai kalifikatzailea lotzen du, eta ezin du eman interesdunek merezimenduen baremoko atal bakoitzean esleitutakoa baino puntuazio handiagoa, akats materiala, aritmetikoa edo egitezkoa izan ezean.

9.2. Eskabideak berrikusteko eskalan sartuko dira, halaber, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta ez duten pertsonak, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duten lanpostuetan, dagokien euskara-azterketa egiteko izena eman dutenak, azterketa gaindituz gero lor lezaketen emaitza hipotetikoarekin.

Epaimahaiak merezimendua eman ahal izateko beharrezko puntuazioa adierazi duten pertsonak bakarrik egin ahal izango dute prozesuan zehar euskara-azterketa.

9.3.- Izangaiek merezimenduak egiaztatzeko arau orokorrak

Izangaiek beren gain hartuko dute aurkezten dituzten merezimenduen egiazkotasunaren ardura. 39/2015 Legearen 28.5 artikuluaen arabera, jatorrizko dokumentuak erakustea eskatu ahal izango da izangaiek aurkeztutako dokumentazioa erkatzeko.





Hautaketa-organoak egiaztatzen badu izangairen batek iruzur egin duela edo eskabidean ageriko faltsukeriaren bat egin duela, eta horrek lehia desleiala sortzen duela, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, interesdunari entzun ondoren, hautaketa-prozesutik kanpo uzteko proposamen arrazoitua egingo du, prozesuan onartutako pertsonen behin betiko zerrenda gainditu duen organoari zuzenduta, eta izangaiek beren merezimenduen autobaremazioan egindako faltsutasunak edo iruzurrezko jarduerak jakinaraziko dizkio. Organo horren ebazpenaren aurka, egoki diren administrazio-errekursoak jarri ahal izango dira.

10. — Lehiaketaren hasiera eta garapena

Onartutakoen, bazter utzitakoen eta atzera egindakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, behin-behineko kalifikazioan puntuaziorik handiena lortu duten izangaiek alegatutako merezimenduak aztertu, egiaztatu eta baloratuko ditu epaimahaiak, gutxienez deitutako plaza-kopurua halako 5 osatu arte.

10.1. Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

10.1.1. Lehenengo zatia: izangaiek autobalorazio-sistemaren bidez eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituko zaizkio. Deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako puntuazioaren arabera ordenatutako instantzien kopurua baino ez da baloratuko.

Lehiaketa-fasean, merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 100 puntu, I. eranskinean ezarritako baremazioaren arabera.

Lehiaketa ez da baztertzaila izango, baina gutxienez puntu guztien % 25 lortu beharko da.

10.1.2. Bigarren zatia. Euskara-proba: derrigorrezkoa eta baztertzaila 2. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostu elkartuak lortu nahi dituzten izangaientzat, euskararen ezagutza maila horretan zehaztea eta egiaztatzea izango da. Epaimahaiak merezimendua eman ahal izateko beharrezko puntuazioa adierazi duten pertsonak bakarrik egin ahal izango dute prozesuan zehar euskara-azterketa eta 7.6. oinarrian azaldutakoaren arabera egingo da.

10.2. – Lehiaketa-fasearen kalifikazioa





Lehiaketa-fasearen balorazioa deialdiko merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du.

10.3. – Lehentasun-klausula.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko Legegintzako Dekretuaren 66. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, emakumeen ordezkaritza eskasa zuzentze aldera:

Hautaketa-prozeduretako sailkapen-ordenan berdinketak egonez gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako irizpideen arabera ebartziko dira, bertan aurreikusitako kasuetan.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen uztailaren 22ko Legegintzako Dekretuaren 66.1 artikuluan oinarrituta, agente-kategorian txanda ireki bidez sartzeko hautaketa-prozeduretan zehaztuko da zenbat plaza bete beharko liratekeen emakumeekin, sustapen-planean aurreikusitakoaren arabera segurtasun-zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatzeko helburua betetzeko.

Plaza-kopuru hori lortu nahi diren helburuekiko proportzionala izango da, eta ezin izango da deitutako plazen % 40 baino handiagoa izan, ezta emakumeen sustapen-planari eta hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten eta gainditzen duten emakumeen ehunekoari buruzko estatistika-datu historikoei jarraiki ezarritako ehunekoa baino txikiagoa ere.

Oro har, emakumeen sustapen-plan horiek egiten ez diren bitartean, gutxieneko ehunekoa ezingo da % 25etik beherakoa izan, betiere hiru plaza baino gehiago deitzen badira.

Kasu honetan, guztira txanda irekiko 3 agente-plaza deitzen direnez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua aplikatzearen ondorioetarako, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da, Zerbitzu Berezien azpieskalan emakumeen azpiordezkaritza dagoelako.

Ondorio horietarako, hautagaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren amaierako puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, dagozkion merezimenduak batu ondoren.





10.4. – Berdinketa hausteko irizpideak.

Aurreko 9.3 paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, berdinketarik gertatuz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, zerbitzuan denbora gehien eman duen izangaiaren alde egingo da deialdia egin duen udalean, deitutako eskala, azpieskala eta/edo kategoria beretan; bigarrenik, deialdia egin duen udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da.

10.5. – Behin-behineko eta behin betiko kalifikazioak.

Merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak behin-behineko kalifikazioak argitaratzeko aginduko du.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 5. oinarrian adierazitako lekuetan, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egokitatzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta aurkeztutakoak ebatzi ondoren, kalifikazio-epaimahaiak argitaratzeko agindua emango du, eta gaitutuen azken kalifikazioak eta eskaintako lanpostuak alkatetzara bidaliko ditu.

Deitutako eskala edo kategoria bakoitzeko, gainditutakoen behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Zerrenda horietan hautagai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, lehentasun-klausula eta berdinketa hausteko irizpideak aplikatuta.

11. – Lanpostuak hautatzea eta esleitzea

Hamar egun balioduneko epea ezarriko da lanpostua aukeratzeko.

11.1 – Parte-hartzaileak.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzera deitutako pertsonak epaimahaiak deialdiagatik, txandagatik eta hizkuntza-eskakizunagatik zehazten duen hurrenkeraren





berdina edo txikiagoa dutenak izango dira. Zenbaki horrek hautatuak izan diren plaza guztien esleipena ziurtatu beharko du.

Prozesu honetan parte hartzera deitutako pertsonen izenen zerrenda behin betiko kalifikazioei buruzko epaimahaiaren ebazpenean sartuko da, eta ebazpen hori 5. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzetik eratorritako eskubideak galduko dituzte oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera plaza garaiz eta behar bezala aukeratzen ez dutenek.

11.2. – Eskaintako plazen zerrenda

Prozesu honetan, eskaintako plazak lehenengo oinarrian adierazitakoak dira, eta honako hauek adierazten dituzte: atxikitako lanpostuaren izena, esleitutako lanpostu-mailako osagarriaren eta berriazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data eta eskakizun espezifikoak.

11.3. – Destinoak aukeratzeko eskabideak.

Lanpostuak bide elektronikoz aukeratzeko, Galdakako Udalaren webgunean eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da.

Halaber, izapide hori bete ahal izango da deialdia egin duen udalaren 6.3 oinarrian adierazitako bulegoetara joanda, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztuta.

12 – Hautatutako pertsonen zerrenda.

Destinoak aukeratzeko epea amaitutakoan, hautatutako pertsonen eta esleitutako plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, izangai bakoitzaren puntuazio-ordena eta adierazitako lehentasunak kontuan hartuta.

Zerrenda hori Alkatetzaren/Lehendakariaren ebazpen bidez argitaratuko da, 5. oinarrian adierazitako lekuetan, eta erreklamazioetarako eta izangaiek eskatutako lanpostuen berriazko baldintzak zuzentzeko 10 egun baldioduneko epea ezarriko da.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta bertan adieraziko da 5. oinarrian adierazitako





lekuetan egongo direla ikusgai hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin betiko zerrendak.

13.- Dokumentuak aurkeztea.

Proposatutako izangaia deialdiaren oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu deialdia egin duen Udaleko Erregistroan, 20 egun baliaduneko epean, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko lanpostuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik kontatzen hasita.

1. Dolozko delituagatik kondenatua ez izatearen, administrazio publiko baten zerbitzutik banandua ez izatearen, kargu publikoak betetzeko ezgaitua ez egotearen eta diziiplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik banandua ez izatearen adierazpena.

2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerazintasunen kausaren batean ez dagoela adierazten duen adierazpena.

3. Udalbatzako Zerbitzu Medikoei emandako ziurtagiri medikoa, beren eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten dien gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez dutela egiaztatzen duena, uztailaren 19ko 315/94 Dekretuaren eranskinean agertzen den. Bazterketen Baremoan ezarritakoaren arabera. Horretarako, izangaiak azterketara medikoa egin beharko dute betetzen dutela egiaztatzeko, eta behar adina proba mediko egin ahal izango dira, hautaketa-prozedura osoan baztertze medikoen koadrora egokitzen direla egiaztatzeko. Mediku-ziurtagiria aurkaratzen bada, izangaiak onartzen du ziurtagiri hori emateko oinarri gisa balio duten txosten medikoak jarritako erreklamazioa aztertzen duten organoen esku uztea, salbu eta haren ohorerako eskubideari eragiten badiote.

Hautaketa-prozesuan zehar egindako kontrolak edo azterketak alde batera utzita, medikuek estimulatuzaileen kontsumoa edo izangaien baldintza psiko-fisikoak aldatzen dituen edozein droga mota kontrolatu ahal izango dute, eta ezgaitzak joko dira positiboak direnak edo horiek egiteari uko egiten diotenak.

4. Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako baldintza espezifikoek fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.





5. Eskatzailearen adierazpena, armak eramateari eta, hala badagokio, erabiltzeari buruzkoa.

Adierazitako agiriak aurkeztea behar bezala justifikatzen ez bada, izangaiak egiaztatu ahal izango du deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez. Funtzionario publiko edo lan-kontratuko langile dena salbuetsita egongo da aurreko izendapena lortzeko frogatutako baldintzak eta betekizunak agiri bidez justifikatzetik, eta bere izaera eta zerbitzu-orrian agertzen diren inguruabar guztiak egiaztatzen dituen Ministerioaren, Administrazio autonomikoaren, toki-korporazioaren edo mendeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko du. Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak bere dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango da izendatu, eta bere jardura guztiak baliogabetuta geratuko dira. Nolanahi ere, eskabidean faltsutzeagatik erantzukizuna izan dezake hautaketa-prozesuan parte hartzeko.

14.- Praktiketako izendapena.

14.1. Deialdiaren baldintzak betetzen dituztela behar bezala egiaztatzen duten hautatuak praktiketako funtzionario izendatuko ditu organo eskudunak, eta 5. oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak egoera horretan egongo dira prestakuntza-ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu edo hautaketa-prozesutik kanpo utzi arte.

14.2. Izendapenaren ebazpenak lanposturako atxikipena ere jasoko du, behin-behinekoa izango dena, prestakuntza-ikastaro bat eta praktikaldi bat aurreikusten diren bitartean, 15. oinarrian ezarritakoaren arabera.

15. - Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia.

